

PRAKTIKA INDUSTRIALIZAZIOA II

1. Zer izan zen bigarren Industria Iraultza? Azaldu (labur). Bigarren Industria Iraultza (edo Kapitalismo Handiko Aroa) 1870.urtean hasi zen aldaketa ekonomikoa izan zen. Lehenengotik desberdintzen da garai hartan petrolio eta elektrizitatea erabiltzen hasi zirelako. Bigarren Industria Iraultzan industria kimikoak, automobilen industriak eta hegazkinen industriak nagusitu ziren. Langileriak ere hobekuntzak jaso zituen, izan ere, langile mugimenduak hasi ziren eta horrekin batera lan baldintzak arautu eta hobetu ziren.

2. Zer da langile mugimendua? Langile mugimendua lan-baldintzak hobetzea helburu duten langileek sustaturiko erakundeak dira. Protesta mugimendu hauek Industrializazio garaian sortu ziren, batez ere Bigarren Industria Iraultzan eta proletargoa eta nekazariak sustatu zituzten. Erakunde hauek ideologia anarkista, sozialista edo komunista izaten dute. Euskal herrian bultzatzaile garrantzitsuena sozialismoa izan zen baina komunismoak eta sindikalizazioa kristauak (abertzaleen lotutako mugimendua) ere denborarekin indarra lortu zuten. Anarkismoak aldiz ez zuen arrakastarik izan Euskal Herriko langile mugimenduan.

3. Zer da sindikatu bat? Zer egiten du? Adibideak jarri. Sindikatu bat taldekideen interes komunak defendatzeko eratzen den langile mugimenduko elkarte bat da. Honek, langileen segurtasuna bermatzen den ala ez aztertzen du, taldekideei laguntza eskeintzen die, enplegu tasan hobekuntzak lortzen ahalegintzen da, erreklamazio eta epaiketetan parte hartzen du... hitz gutxitan esanda langilearen lan baldintzak hobetzea du helburu. Euskal Herriko sindikatu garrantzitsuenak edo ezagunenak ELA (Eusko Langileen Alkartasuna) eta LAB (Langile Abertzaleen Batzordea) dira.

4. XIX.mendean Estatuan/nazioartean langileek antolatzeke sortu zituzten egiturak azaldu, adibideak jarri (alderdi politikoak, egunkariak...). Antzin Erregimenan ere partiduak existitzen ziren arren, esan genezake monarkia absolutuen fazioak zirela eta egungo partidu politikoek ulerkera parlamentu ingeleseko prozesu iraultzaile liberaletan dagoela. Subiranotasun nazionala eta parlamentarismoa politikan parte hartzeke aldarriaren ondorio izan ziren, eta honenbestez helburu amankomuneko antolakundeak sortzen hasi ziren, bai langile aristokraziako kideak eta baita langile mugimendukoak ere.

1832an BHan burgesiaren sistema politikoan parte har zezan *Reform Act* delakoa egin zen, eta horretarako antolakuntza eta euren ideiak defendatzeko zituen partu baten aldeko hautua egin beharra izan zuten. Hasieran garai elektoretan soilik funtzionatzen zuten, eta orokorrean Estatu bakoitzean progresistagoa zen bat eta kontserbadoreagoa zen beste bat besterik ez ziren eratu. Garai luzetan zehar euren arteko txandaketan oinarritu ziren gobernuetako agintaldiak. Baina XIX.mende

amaierako sufragio unibertsalaren aldarriarekin batera, partidu politikoen egituretan aldaketak behar izan ziren. Gainera, proletargoa politikan partehartzaile bilakatzearen aldeko partidu sozialistak eratzen hasi ziren.

Partidu hauen eraketek, mitinen bidez besteak beste, masen hezkuntza politikoa handitu zuten. Jendea bertara batzeko prozesua aurrekoekiko horren desberdina izan zen, ezen egituraketa ere desberdina izan zela; besteak beste, egitura burokratiko egonkorrak eratu ziren. Propaganda elektoralak baino garrantzia handiagoa hartu zuten egunerokotasunean langile masak irakurtzeko aukera zuen egunkarien argitalpenak.

5. Erantzun bideoan agertzen diren galderei:

- **Daens (1992):** <https://vimeo.com/60928913> .

- **24 galdera.**

5.1. Nolakoa zen umeen bizitza langile klase-proletarioan? Haurrak, familien sustengua berma zezaten, fabriketan lan zuzena eginda ere egoera kaxkar eta esplotatua lan egitera behartuak zeuden, horrela guztiz langile sozializatu bihurtuz.

5.2. Nolakoa zen klase burges-kapitalistako umeen bizitza? Bete-bete ikasketetan murgilduak zeuden. Honela, lan banaketa soziala aditzera ematen da, izan ere, gizarteko kargu pribilegiatu eta garrantzitsuenak eurek betetzen zituzten.

5.3. Nolakoa zen langile klaseko herritarren bizitza? Pelikularen zati honen arabera, tabernan edatea, dantzatzea, abestea eta sexua ziren langile klasearen entretenimendua.

5.4. Nola bizi zen langile klaseko familia bat? Animaliekin batera kale estu eta zikineta bizi ziren, insalubritate handian. Oso kale zaindu gabeak ziren eta garbiketa zereginak (arropa garbitzea adb.) emakumeek kalean egiten zuten, baita egurra moztea bezalako beste zeregin batzuk ere. Seme-alaba ugariak osatzen zituzten eta etxeak txiki geratzen ziren hainbeste pertsonentzat. Otorduen aurretik errezatu egiten zuten, eta jatekoa ere ez zen ugaria (bideoan patata bakarrik jaten dute bazkaritarako).

5.5. Zergatik baztertzen zituzten burgesek Daens-en ideiak? Zer suposatuko luke hauentzat Daens-ek aldarrikatutako hobekuntza laborala eta salarrialak? Teorian euren ideiak defendatzen zituen egunkari katoliko batean idatzi zuen Daens-ek, artikuluan langileak “beren gainera botatzen” zituelarik. Gainera, hiria arriskutsu bilakatzea aurpegiatzen diote: lapurretak handitzea, beren emazteei biraoak botatzea... Merkatuan, prezio ez konpetitiboak izatea suposatuko luke honek guztiak, baita krisiaren ondorioz fabrika ugari itxi behar izatea ere.

5.6. Zein ezberdintasun dago partidu katolikoaren buruaren eta beste enpresariaren artean? Batek ahalik eta gutxien ordaintzea proposatzen du fabrika mantentzeko, ia bizirauteko ere ez izanik langileek (fabrikak itxiz gero, okerrago biziko direla argudiatuz). Enpresa burua, aldiz, kontra dago, langileen baldintza benetan kaxkarra izango litzatekeela ikusita.

5.7. Zein soluzio ezartzen diote krisiari liberal moderatuek? Liberal moderatuek, pobreziak arazo izateari uztean emakumeak kontratatzeak irabazi handiagoak izango litzatekeela uste du. Hala, teknika eskozesetan bezala, 4 makinako 3 emakume ezartzea proposatzen du.

5.8. Nola erreakzionatzen du liberal-progresistak liberal-moderatuen proposamenaren aurrean? Liberal progresistek langileak kezkatzen direla eta, kaxkartu beharrean, beren lan baldintzak hobetu nahi dituztela diote.

5.9. Zer egiten du partidu katolikoko buruak Daens sazerdotea isilarazteko? Bere kargua kenduz mehatxatzen du. Gainera, ikerketak has ez daitezen sazerdotearen goi kargu den abadeari, sazerdotearen ideiak demagogiaz beteak daudela informatzen dio, eta mesedez kargutik botaz isilaraz dezan ere eskatzen dio.

5.10. Nolakoak ziren garaiko langileen baldintza laboralak? Zein lan-eskubide zituzten? Zahartzen zirenean, langabezian geratzen ziren. Baina tamalez, beren familiako lanpostua beharrezko zutelako familiaren mantenurako eta kexatzen baziren hauek arriskuan jar zitzaizketen. Gizonezkoak emakumezkoak baino garestiagoak zirenez eta lehenago botatzen zituzten lanetik. Segurtasun laboral eskasak zituzten eta lanpostua mantentzearen egoera oldarkorrek onartzera behartuak zeuden.

5.11. Zein zen burgesiaren erantzuna langileriaren greba eta manifestazioen aurrean? Garai hartan langileriak zein eskubide sindikal zituen? Langileriaren aurka egin zuen burgesiak, jendarmeak mobilizazioak geldiaraztera bidaliz, euren indarrak eta bortxaz langileak zein zapalduak zeuden adierazten zuten. Garai hartan langileriak ez zuen eskubide sindikalik.

5.12. Orokorrean nola deitzen zen langileriaren bizitza eta haien eskubideak hobetzeko helburua zuen ideologia? Sozialismoa.

5.13. Liberal moderatuek eta kontserbadoreek sufragio zentsitarioa defenditzen zuten. Sistema horretan nork bozka zezakeen? Aberastasun kopuru jakin bat zutenek soilik bozka zezaketen. Modu horretan, langileriak ez bozkatzea lortzen zuten agentariek, soilik burgesiak bozkatu ahal zuelarik.

5.14. Nola erreakzionatzen du Elizako hierarkiak burgesia katolikoak presionatzen duenean? Daensi damutzeko esan eta San Martin elizan predikatzea galarazten diote.

5.15. Burgesiak zein neurri hartu zituen langileriaren desnutrizioa gutxitzeko eta haien haserre handia txikitzeko? Lanera itzuli zirenei soilik ematen dieten jaten, greban daudenei eta lanik egiten ez dutenei ez.

5.16. Sozialisten eta demokraten manifestazio eta grebek lortu al zuten sufragio unibertsala? Bai.

5.17. Daensen kristautasun humanistaz gain hauteskundeetan beste zein bi indarrek babesten dute? Liberalek eta sozialistek.

5.18. Alderdi politiko burgesek zein estrategia erabiltzen zuten langileriaren babesa lortzeko? Jaten eta edaten ematea.

5.19. Elizaren hierarkiak zein babesten du humanismo kristaua ala burgesia katoliko kontserbadorea? Burgesia katoliko kontserbadorea.

5.20. Sufragio unibertsala jarri zenean burgesia dominatzaileak fraude elektorala egiten zuen, boterean mantentzeko. Zein baliabide erabiltzen zituen? Bere aldeko boto gehiago sartu eta aurkariak baliogabetzen zituzten.

5.21. Zergatik dago Elizaren hierarkia Daensen aurka? Zein klase sozialetakoak dira horiek? Elizako goi-mailako kideak burgesiaren parte dira eta ez zaie komeni langileriak indarra hartzerik. Hortaz, Daensen aurka daude langileriaren alde egiten duelako.

5.22. Industrializatu ziren beste herrialdeen moduan Belgikak ere Europatik kanpo lurraldeak konkistatu zituen. Nola zuen izena Afrikan zuen kolonia nagusiak? Kongo.

5.23. Burges batzuek zein metodo extrajudizial erabiliko dituzte langileriaren eskubideen alde egiten duten edonor geldiarazteko? Bizkartzainak edo “matones” bidaltzea jendea hilko dutela esanaz eta bortxa erabiliz erasoak eginez.

5.24. Mugimendu antisozialista eta antidemokrata sortuko da, nola du izena? Faxismoa.

6. Ondorio Kritikoa. Nola aldatu zuen industrializazioak mundua?

Industrializazioa sistema feudaletik kapitalismorako trantsizioko azkeneko faseetako bat da. Aldaketak eman ziren produkzio prozesuan produzitzeko bitartekoak aldatu zirenean, makinak zein fabrikak hirietan ezarri zirenean alegia. Honek, produktu bakoitzaren ekoizpena handitzea eta arintzea ekarri zuen eta merkatua beste dimentsio batzuetara garraiatu. Hala, fabrikari lana egingo zuten langile asko hirietara mugitu ziren, aurreko lan baldintzetan izan zezaketen autonomia apurra lapurtuz.

Langileen lan egiteko erari dagokionean, lan prozesu indibidual edo kooperazio sinpleko egiturari lan egiteko, lan banaketa teknikoaren ondorio bilakatu zen kooperazio konplexuko lan prozesuari lan egitera pasa ziren. Beraz, ordura arte langile bakoitzak bere lan baliabideekin zuen estutasuna galdu zuen, eta norbere gaitasun pertsonalak albo batera utzi zituen. Ordutik aurrera, lan baliabideak zango zuen zentralitatea objektutik produkturako eraldaketan. Honek guztiak gizartean sekulako eragina izan zuen eta herritarren arteko harremanetarako era nahiz harreman-sareak aldatzen joan ziren gaur egunera iritsi arte.

Nabaria da industrializazioak eragin dituen onura eta aurrerapenak, gure ustez jendearen sormena eta makina zein ideia berriak sortzeko handinahia bultzatu ditu, baina lehiakortasuna eta elitismoa oraindik mantendu egiten dira.